

IRAKURRI TESTUA ETA EGIN AKTIBITATEAK (idatzi esaldi osoak)



Hauek Imanol eta Ana dira. Oso lagunak dira. Imanolek 11 urte ditu eta Anak 12. Haiek Bilbon bizi dira baina ez dira Bilbokoak. Ana Venezuelakoa da eta Imanol Ekuadorrekoa.

Imanolen aita euskalduna da, horregatik Imanol izena du. Imanolen ama Ekuadorrekoa da.

Anaren aita eta ama Venezuelakoak dira, baina orain Bilbon bizi dira.

Anak ahizpa txiki bat du, Mariela da bere izena. Marielak bi urte ditu.

Anari eta Imanoli futbola gustatzen zaie. Patioan jolasten dute. Anari eta Imanoli ere liburuak irakurtzea gustatzen zaie. Liburu asko irakurri dute.

Oso lagun onak dira. Baroja eskolan ikasten dute. Ana seigarren mailan dago eta Imanol bostgarren mailan dago.

- 1.- Zenbat urte ditu Imanolek?
- 2.- Zenbat urte ditu Anak?
- 3.- Nongoa da Ana?
- 4.- Nongoa da Imanol?
- 5.- Non bizi dira Ana eta Imanol?
- 6.- Nongoa da Imanolen aita?
- 7.- Zenbat urte ditu Anaren ahizpa txikiak?
- 8.- Nola da bere izena?
- 9.- Zer mailan dago Ana?
- 10.- Non ikasten dute?